¡BERDINTASUNA! ¡BAIKOTZENTZAT BAIKOTZENA!

Gabe baten, bi sagutxu, euren "lenengo bearrian", ebilli ta ebilli, batetik bestera, zulo batetik eldu zian "GAZTAI ONENA" izeneko tendera. Ta an barruan ikusi ebeiñ, mai gañean, gaztaiak. Biok oratu ebeiñ gaztai bat ta joanzian etorrizianeitik, guztiz pozik.

Baña biok batera, sagutxoak oldostuebeiñ, onena izango zala bixontzat, erdubitutia gaztai a, izan eixen baikotzentzat baikotzena, benetako erdibitutasunean, berdintasun berberena. Alabe, orrelan errezagoa izangozala –gaztaia erdibituta– baikotzak berena eruatia.

Baña orretan euzenian sagu biok mintzatuten, orretan eusela burukomiñ aundiena emuten autzana biori: Zelan erdibitu gazta a izan ediñ, zati baikotzak berdinberdiñak? Oldoztasun onegaz eusein guztiz neasketatuta. Zelan erabagi alako ebaizkizun aundea?

Orretan euzenian, entzunebeiñ, euela an, aldian, TXIMIÑO "jakintsuen artean jakintsuena", erabagiten ebenak ebaizkizun nekezenak ta aundienak.

Entzun ebeñaz, joan zian sagutxoak gaztaiaz zuzen TXIMIÑOren etxera.

Zartu zianian saguak euren gaztaiaz TXIMIÑO-ren etxean, onek ikuzi alaz gaztai aundi a, jaiki zan, ta bezoaikiñ jazota, poztasunez beteta, ezan eutzan saguairi: "Ongi etorriak, nere lagun onenetakoak". ¿Zer nai dozue neretik? Ni gertu nago, nai dozuentarako. Baña, ekiteko, onena izango d ipitia gaztai eder ori emen, mai gañean. (Ta orrelan egiñebeiñ sagutzuak). Baita be TXIMIÑO "jakintzuak" ezan eben: "Nere lagun maiteak: Jazarri ondo aulkian, obeto egoteko. "Gertu nago entsunteko nai dozuena, nere lagun ononenetakoak".

Sagutxoak ezan eutzain, zela ta zelakoa zan euren ebaizkizuna. Nai ebella erdibitu gaztai a, bi zatitan, "berdiñ-berdiñean", izan eizen "baikotzentzat baikotzena". Baña biok ikusten ebella, zelako nekeza izango zan orrelako erdibitutasuna, izen eizen zati biak berdiñberdiñak.

Obeto baño obeto entzunda, TXIMIÑO arek "beren lagun" on areik nai ebena, erantzun eben: "Bai, argi ta garbi ikusten dot zuek naidozuena: Izan edilla: "BAIKOTZENTZAT BAIKOTZENA" Ori da egi-egiazko BARDINTASUNA. Ta orregaz ezaten dozue dakozuela ZUZENTASUN egarri aundia. Ta alako egarri aundia dagonian, emen eukiko dozue iturri onena".

Erabagiteko orrelako ebaizkizun aundia, nago ni beti gertu.

Orretan euzenian, ezan eutzan zagutxu batek beztiari: Oraiñ ikuziko doguna ben-benetan IKUSIKOGARRIA izango da.

Orregaitik euseiñ gertu, begiaikiñ ondo ereita zagutxu biak.

Erabagiteko orrelako ebaizkizun aundia, ezan eben berriz TXIMIÑO "jakintzuak" ni nago beti gertu. "Orretarako-jarraitu eben TXIMIÑO arek-emen dakot biar dan onena. Ta etaraeben maipetik ganibet aundi ta zorrotz bat, ezan alaz: "Onegaz erdibituko dot gaztaia, bi zatietan". Alabe etara euen maipetik, txonpela, ezan alaz, txonpela da, ezagututeko, neurriteko zati baikotza, ikusteko zer bardin dan, gastaia ebai ta gero zati biak, eltzeko bardin-bardintasuna. Ta ori da egingotena, zuen begien aurrian".

Sagutxu biak euzeiñ entzuten TXIMIÑO "jakintsuak" ezaten ebena, begiaikiñ ondo ereita, gertu ikusteko zelan erabagikozan euren ebaizkizun aundia.

TXIMIÑO-ak jazo eben bezoa gaipeteaz ta ebai eben gaztaia bi zatitan. Gero zati baikotza ipiñi eben txonpelan. Baña alde bateko zatia zelan zan beste zatea baño aunditxuagoa, bardinduteko bi zatiak, TXIMIÑO-ak ainkatxu bategaz zati aundienari, egiñ eben alegiña berdinduteko zati biak (danori, sagutxoak ikusten zelan egiten zan bardintasuna). TXIMIÑO arek, ordu-laurenian AMAITU eben beren "biar nekeza".